


UPV/EHU-k, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren **1.4 puntu**an –**Gradu eta master amaierako proiektuetan genero ikuspegia sustatzea**– aurreikusitako ekintza bat betetzeko, gradu amaierako lanetan genero ikuspegia txertatu duten lanak bultzatzeko eta ikustarazteko, sari bat sortzea erabaki du.

Sari horren izena Francisca de Aculodi da, aurreko sarietan gertatu den moduan, jatorriz edo adopzioz euskaldunak izan ziren eta beren lanbideetan aitzindariak izan ziren emakumeen izenak eta ekarpenak berreskuratzeko bideari jarraituz.

Estatu osoan eta, are gehiago, Europa osoan ezagutzen den lehenengo emakume kazetaria, 1687an hasi baitzuen bere lana, Elisabeth Mallet-ek, adibidez, *Daily Courant* 1702an sortu zuen Ingalaterran.



Francisca de Aculodi

(XVII. mendea)

Liburuen eta liburuxken inprimatze-lana, familia-lana izan ohi zenez, emakumeen lana ere izan zen, baina haien aztarnak galdu omen dira

Emakume kazetarien lehengo aztarnak XVII. medekoak dira, Donostian Francisca de Aculodi, 1687tik 1689ra arte, *Noticias principales y verdaderas* orria inprimatzen eta argitaratzen hasi zen unean.

Orria hamabostero ateratzen zen, eta Bruselan, Espainiak orduan Flandesen zituen lur-eremuen hiriburuan, Pedro de Cleyn-ek ateratzen zuen egunkariaren kopiatzat hartzen da.

Francisca de Aculodik, berri horiekin batera, tokiko berriak sartzen zituen, berak aukeratuak eta idatziak. Eta, esaten denez, osperen bat lortu zuen.

GENERO IKUSPEGIA GRADU AMAIERAKO LANETAN BARNE HARTZEAREN FRANCISCA DE ACULODI SARIAREN I. EDIZIOAREN DEIALDIA —2013/2014 ikasturtea—

1. DEIALDIAREN HELBURUA ETA APLIKAZIO EREMUA

UPV/EHUko emakume eta gizonen Berdintasunerako I. Planaren (2010-2013) 1.4 puntuan aurreikusitako ekintza betez, “gradu eta master amaierako proiektuetan genero ikuspegia sustatzea”, alegia, UPV/EHUk FRANCISCA DE ACULODI saria sortu du gradu amaierako lanetan genero ikuspegia barne hartzeari dagokionez, ikasleek ezaugarri horrekin eginiko lanik onenak aintzatesteko, jakitera emateko eta saritzeko.

Sariak ohorezkoak baino ez dira, eta bi emango dira —bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz— jakintza adar bakoitzean: Arteak eta Humanitateak; Ingeniaritza eta Arkitektura; Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak; Osasun Zientziak; eta Zientzia Esperimentalak.

2. ESKAERAK FORMALIZATZEA, ENTREGATZEA ETA EPEAK

UPV/EHUko Ikastegietako Berdintasunerako batzordeak, edo berdintasunaren ardura duenak, aukeratuko ditu sarira aurkeztuko dituen lanak. Ikastegi bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahal izango ditu, bat euskaraz eta beste bat gaztelaniaz, 2013-2014 ikasturtean defendatutakoak izan behar dute eta gutxienez bikaina lortu behar izan dute.

Deialdian parte hartzeko, Berdintasunerako Batzordeak deialdi honi erantsitako eskabide orria aurkeztu beharko du.

Aurkeztutako lanak, tituluarekin eta edukiaren laburpen batekin (300 hitz gehienez) posta elektronikoz bidali behar dira, pdf edo word formatuan, berdintasuna@ehu.es helbidera, egilearen, tutorearen, graduaren edo ikastegiaren izenik gabe. Mezuan zein jakintza alorrekoa den adierazi behar da.

Eskaerak aurkezteko epea 2014ko irailaren 30ean amaituko da.

Eskaerak Erregistro Orokorraren edozein bulegotan aurkeztuko dira, Berdintasunerako Zuzendaritzari zuzenduta (Ikasleek, Enplegu eta Gizarte Erantzukizun alorreko Errektoreordetza, Sarriena auzoa zk.g., 48940 Leioa).

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe baldin badago edo zuzendu daitezkeen akatsak baldin badaude, saria eskatu duen Ikastegiko Berdintasunerako Batzordeari 10 egun balioduneko gehienezko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo beharrezkoak diren dokumentuak aurkezteko, eta ohartaraziko zaio, hala egin ezean, bere eskaera utzietsizat joko dela.

Deialdi honetako epaimahaiak deialdia ebazteko egoki irizitako informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du.

3. PROZEDURA, EPAIMAHAIK ETA EBAZPENA

Epaimahaiek epaitu behar duten jakintza adar bakoitzeko 3 ikasle eta ikertzailek osatuko dituzte, UPV/EHU-ko Berdintasunerako Batzordeak horretarako izendatuak. Idazkari, hitz egiteko aukerarekin baina botorik gabe, UPV/EHU-ko Berdintasunerako Batzordearen irakasleren bat izango da. Berdintasunerako batzordeak ez du epaimahaikide izendatuko aurkezturiko lanen egilearekin edota tutorearekin lotura akademiko edo familiarren bat duen irakaslerik edo ikertzailek.

Sariak emateko, lanen balioespena honako hauen arabera egingo da:

- Lanaren kalitatea
- Gaiaren eta ekarpenen garrantzia eta originaltasuna
- Lana gauzatzeko zailtasuna
- UPV/EHUren Berdintasun-Planaren printzipioekiko koherentzia

Aurreikusitako sariren bat hutsal gera daiteke, ez delako lanik aurkeztu, edota aurkeztu dirennek ez dutelako saririk merezi

Epaimahaiek 2015eko otsailaren 15a baino lehen argitaratuko du deialdiaren emaitza, <http://www.berdintasuna.ehu.es> web orrian, honako hauen berri emanez: irabazlearen izena, tutorearen izena eta Saila, zein gradu eta ikastegikoa den, eta saritutako lanaren edo lanen laburpena.

Sariak, 2015eko martxoaren 8ko ekitaldi akademikoan banatuko dira, Arabako Campusean.

Sarian parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.

Leioan, 2013ko Irailaren 2an
Maite Zelaia Garagarza
Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren Arloko Errektoreordea